


AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2020KO IRAILA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 5,5 gehitu dira 2020ko irailean

2020ko lehen bederatzi hiletan % 1,7ko hazkunde metatua gertatu da

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko irailean, Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kateetako salmentek % 5,5eko urte arteko igoera izan dute, lan-egutegiko baldintza homogeneousan; laugarren hilabetea da jarraian tasa positiboekin. 2020ko abuztuarekin alderatuta, urtaroen eraginik gabe, salmentak % 0,5 igo dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek, azalera handietan eta elikadura-kateetan, % 6,8ko urte arteko igoera izan dute; gainerako salgaiek, berriz, % 2,9ko igoera izan dute aurreko urteko hil beraren aldean, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

2020ko abuztuarekin alderatuta, eta dagozkion urtaro-ondorioak atera ondoren, prezio konstanteetako elikagaien salmentak % 1,6 igo dira; gainerako produktuenak, berriz, % 1,7 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Iraila 2020 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	5,5	0,5	1,7
Araba/Álava	4,1	-1,1	2,6
Bizkaia	4,6	0,3	0,5
Gipuzkoa	7,6	1,3	3,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	6,8	1,6	8,8
Beste produktuak	2,9	-1,7	-12,2
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	-0,3	-0,6	1,3

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurraldeka, 2020ko irailean guztietan izan dute salmentek urte arteko hazkundearen prezio konstanteetan: % 4,1 Araban, % 4,6 Bizkaian eta % 7,6 Gipuzkoan, egutegi-ondorioak behin aterata.

2020ko urtarrietik irailera bitarteko metatutan, Merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kateetako salmenta-indizeak % 1,7ko igoera izan du, elikaduran metatutako salmentak % 8,8 igo direlako, eta gainerako produktuen salmenta metatuak % 12,2 jaitsi direlako.

Urteko metatutan lurralde guztiak gehitu dira: Bizkaia % 0,5, Araba % 2,6 eta Gipuzkoa % 3,2. Hori dena, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kateetako enpleguak % 0,3 murriztu dira 2020ko irailean, aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 0,6, urtaro-eraginik gabe, aurreko hilaren aldean.

2020ko lehenengo bederatzi hilabeteetako metatutan, enpleguak % 1,3 hazi dira 2019ko aldi beraren aldean.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuaren artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-ondoriorik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, iraileko indizea laginaren % **88,10ko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa urrian zehar jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62